

Akitania-Euskadiren arteko Lankidetzeta Fondoak babestutako proiektua



BAIONA-DONOSTIA EUSKAL EURO-HIRIA, LAN MERKATUAREN AZTERKETA PROSPEKTIBOA

ONDORIOAK

2008ko martxo

Sustatzaileak:



GAINDEGIA



HEMEN ELKARTEA

BAIONA-DONOSTIA EUSKAL EURO-HIRIA, LAN MERKATUAREN AZTERKETA PROSPEKTIBOA ONDORIOAK

AURKEZPENA

Txosten honek proiektuak utzi dituen ondorioak biltzen ditu. Bertan burutu ditugun azterlan bakoitzaren ondorio nagusiak jasoko ditugu eta ondoren ideia nagusien sintesia egingo dugu.

AURKIBIDEA

- Problematika
- Emaiza nagusiak
- Ondorio nagusiak
- Epilogoak
- Eranskinak, egindako txosten bakoitzaren ondorioak:

I eranskina: "Euro-hiriak biltzen dituen udalerrien argazkia"

II eranskina: "Baiona-Donostia euskal Euro- hiria eta Iparraldeko gazteen txertatzea lan merkatuan. Formakuntza eta lan ibilbidea"

III eranskina: "Estudio comparativo de las políticas de mercado de trabajo en el marco de la Euro-ciudad vasca"

IV eranskina: "Lan mugikortasunari buruzko delphi azterketa Baiona-Donostia euskal euro-hiriaren baitan"

PROBLEMATIKA

Baiona-Donostia euskal Euro-hiriaren lan merkatuaren etorkizuneko bilakaerari erreparatzeko bizi dugun errealitate konplexuaren hainbat alderdi hartu behar da kontuan.

Aldeko hainbat faktore

- **Errealitate geografikoa homoginoa:** inguru geografiko homogeen batean kokatua dago (kostaldea, orografia...). Lurralde eremu hau bitan banatzen duen elementu nagusia ez da geografikoa, aitzitik. Gainera, Atlantikoari begira egoteak itsas trafikoaren atari garrantzitsu egiten dute. Kontinentea eta penintsularen arteko lotunerik erosoetako bat izateak ezinbesteko pasabide bihurtzen dute pertsona eta salgaientzat.
- **Errealitate kultural eta linguistikoa:** euskara eta euskaltasunaren inguruan oinarri komuna du Euro-hiriak. Nahiz eta gaur egun Iparraldean euskaltasunak egoera ahula bizi duen, aktibo garrantzitsua izaten jarraitzen du eta etorkizunean are garrantzitsuagoa bihurtzeko aztarnak daude kulturen eta euskararen normalizazioa egiten ari den urratsekin (hezkuntzan, hedabideetan eta hainbat enpresetan).
- **Espazio bakar bihurtuta dago hainbat arlotan, batez ere, turismoa, aisialdia eta komertzioan:** Deustuko Unibertsitateak Euro-hiriaren Agentziarentzat egindako mugikortasun azterketak adierazi bezala, jende joan-etorria handia da, batez ere Iparraldetik Hegoaldera eta aisialdiarekin lotutako aktibitateetan.
- **Europako Batasunaren politika mugakide diren eremuen integrazioa sustatzeko.** Europako Batasunak gero eta indar handiagoz sustatzen du mugakide diren eskualdeen arteko lankidetzak eta integrazioa maila ekonomiko zein sozialean. Etorkizunean bide honetan urrats gehiago etorriko dira eta aukera berriak ezagutuko ditugu.
- **Erakunde publiko zein pribatuen arteko elkarlan bideak.** Konferentzia Euro-erregionalak abian jarritako elkarlan hitzarmenak osasungintzan, edo ESTIA injinari eskola eta Mondragon Unibertsitatearen artekoa, esaterako.

Hainbat zailtasun

- **Egitura administratibo eta juridiko desberdinak:** Ente administratibo desberdinak inplikaturik dauden neurrian zailtasunak bat baino gehiago dira. Legediak desberdinak dira eta arlo sozialean bereziki dira desberdinak Frantzia eta Espainiako politikak. Horrezaz gain, bertako eragileen artean ere eskumen aldetik asimetria handiak daude, besteak bere, Iparraldeko lurralde eremua hartzen duen instituziorik ez dagoelako
- **Jarduera ekonomiko desberdinak:** Hegoaldeko ekonomia oso dibertsifikatua da eta industriak indar handia izaten jarraitzen du. Iparraldekoa, aldiz, zerbitzuetan oinarritutako ekonomia da eta hau hein handi batean turismoa, merkataritza eta osasun zerbitzuetan oinarritzen da. Desberdintasun hau muga izan daiteke, baina baita osagarritasuna bilatzeko aukera bat ere.
- **Errealitate sozial eta ekonomiko desberdinak:** egiturako adierazle makroei erreparatuta, desberdintasun handiak daude Hegoalde eta Iparraldearen artean. Hegoaldean dinamismo ekonomikoa askoz biziagoa da, Iparraldean, berriz, estatuaren babes soziala nabarmen handiagoa da.
- **Formazio eskaintza eta homologazioa:** Formazio planak desberdinak dira eta elkarren osagarri izan badaitezke ere, titulazioen homologazioan zailtasun handiak daude.
- **Hizkuntza irakaskuntzan konbergentzia planteamendurik ez.** Ingelesa nagusitzen da hezkuntzan atzerriko hizkuntza moduan. Euskara, frantsesa edo gazteleraren irakaskuntzari ez zaio behar besteko garrantzirik ematen, ez baita mugaren beste aldekoarekin komunikatzea lehenesten.
- **Inertzia psikologiko handiak:** Aipatu arazo guztiak medio, Euro-hirian oraindik oso ahula da identitate lokala. Mugaren alde bakoitza besteari bizkar emanda bizi da egunerokoan eta herritarrek eurek muga horien arabera eta muga horiek elikatuz bizi dira.

Azken batean errealitate konplexu baten aurrean gaude eta zailtasunak aukerekin nahasian datoz. Hurrengo urtetako erronka nagusietako bat berdintasunak eta aukerak baliatzen asmatzea izango da egun dauden zailtasunak urraska gainditzen asmatzeko. Bide honetan Europa Batasuneko politika mugaz gaindiko gaietan lagungarri izango da kudeatzen asmatuz gero. Orain artekoari so eginez, ordea, atzerapen handia daramagu Europa Batasunaren barruko beste muga-eremuen arteko elkarlan giroarekin alderatuz gero.

EMAITZA NAGUSIAK

Proiektu honen baitan lau azterlan burutu ditugu. Honako hauek:

- “Euro-hiriak biltzen dituen udalerrien argazkia” (Ikus I txostena)
- “Baiona-Donostia euskal Euro- hiria eta Iparraldeko gazteen txertatzea lan merkatuan. Formakuntza eta lan ibilbidea” (Ikus II txostena)
- “Estudio comparativo de las políticas de mercado de trabajo en el marco de la Euro-ciudad vasca” (Ikus III txostena)
- “Lan mugikortasunari buruzko delphi azterketa Baiona-Donostia euskal Euro-hiriaren baitan” (Ikus IV txostena)

Azterlan bakoitzak galdera nagusiei erantzun ahal izateko argibideak utzi dizkigu. Hona azterlanak lanak utzitako argibide nagusiak:

“Euro-hiriak biltzen dituen udalerrien argazkia”

Demografiari dagokionez...

- **Dentsitate handiko ingurunea:** 690,5 pertsona bizi da km² bakoitzeko, batez ere Gipuzkoako aldean.
- **Biztanleria oso zahartua eta jaiotza tasa txikia:** Zahartze indizea 128koa da. Jaiotza tasa mila biztanleko 9,6 haur jaio (2005) .
- **Gaztetxoenen eskolatze tasa handia eta ikasketa maila altuko biztanleria:** Lapurdiko egoera Gipuzkoakoa baino hobea da. Gainera gero eta gehiago dira euskaraz ikasten duten ikasleak, batez ere Gipuzkoan.

Lan merkatua eta biztanleriari dagokionez

- **Jarduera eta enplegu tasetan EBren antzeko balioak.** Hala ere, emakumeek eta gazteek dituzte tasarik baxuenak. Gazteen kasuan, Lapurdiko jarduera tasa nabarmen baxuagoa da, eskolatze tasa altuaren ondorioz.
- **Langabezia tasak ere antzekoak:** 2005. urtean langabezia tasa %7,3 zen EAEn, eta %9,2 Pirinio Atlantikoetan; Europako Batasunean ere %8,9ra jaitsi da 2005. urterako. Emakume eta gazteen langabezia tasak altuagoak dira, baina hauek ere nabarmen jaisten ari dira azken urteotan.
- **Behin-behinekotasun tasan diferentziak.** Gipuzkoan bostetik bat, Lapurdin hamarretik bat (%13) dago egoera horretan.
- **Okupatuaren jarduera profesionala.** Euro-hirian inguruko eskualdeetan baino gehiago dira administrazio lanetan eta zerbitzuetan ari direnak, eta gutxiago esku-langileak.
- **Euro-hirian zerbitzuen sektoreak leku berezia:** hamar okupatuetatik 7 sektore honetan ari da lanean.
- **Okupatuaren erdiek bizi diren udalerrian egiten dute lan:** Ia biztanleen erdiek bizi diren udalerrian bertan lan egiten dute. Lapurdin indizea txikiagoa da.
- **Gehienak auto partikularra erabiltzen dute lanera joateko:** (%55,1). Lapurdin indize hau handiagoa da.

“Baiona-Donostia euskal Euro-hiria eta Iparraldeko gazteen txertatzea lan merkatuan. Formakuntza eta lan ibilbidea”

Lan merkatuaz eta formazio eskaintzaz

- **Iparraldean formazio eskaintza oso mugatua da**, batez ere ikasketa unibertsitarioei dagokionez.
- **Iparraldeko gazteek profesionaltasunari balio handia ematen diote.** Gazteek ikasi duten horretan lan egiteko xedea dute eta horretan ahalegintzen dira. Bai kanpora joandakoak bai bertan gelditutakoak.
- **Iparraldeko lan merkatuko eskaintza oso mugatua da**, ez dio bertako gazteen formazioari edo asmo profesionaleri erantzuten.
- Formazio eskaintzari edo enplegu eskaintzari dagokionez, Iparraldeko **gazte gehienek sare informalerara jotzen dute informazio eta aholku bila.**
- Lanean ari direnean gazteen hasierako helburua **esperientzia hartzea da**. Horregatik, nahiago dituzte erronkak eta ez zaie behinbehinekotasuna axola.

Mugikortasunaz

- **Iparraldeko ikasle gehienek kanpora joan behar izaten dute ikastera**, baina badago multzo bat bertan bizitzeko erabakia hartu duena eta bertan ikasten gelditzen dena. Talde honek bere formazio maila eta asmo profesionalak eskura duen horretara egokitzen du. Beste talde batek, berriz, bere asmoak bizilekuaren gainetik jartzen ditu eta prest dago behar den lekura mugitzeko.
- **Iparraldeko gazte gehienek ez dute Hegoaldera desplazatzeko aukera pentsatu ere egiten (ikastera edo lan bila).** Frantziara

begiratzen dute. Aurreiritziek eragin handia dute eta ezjakintasun handia dago.

- Formazioa Hegoaldean egiteko dauden **eskaintzak (Erasmus eta Hezkuntek) arrakastatsuak** izan dira parte hartu dutenentzat, baina gutxiengo bat besterik ez da gaur egun oraindik.
- **Iparraldetik kanpora joaten diren ikasleek itzultzeko asmoa adierazten dute.** Talde guztiek azpimarratzen dute bertako bizitza kalitatea eta bere inguru sozialarekiko atxikimendua.

“Estudio comparativo de las políticas de mercado de trabajo en el marco de la Euro-ciudad vasca”

- **Enplegu politika Gobernu Zentralen eskumena da.** Egun indarrean dauden enplegu politikak eta beren gestio egiturak ez dute ahalbidetzen mugaz gaindiko politikak gauzatzea alor honetan.
- **Egungo enplegu politika estatalek ez diote mugaz gaindiko errealitateari** erantzuten eta ez dirudi horretan ahalegintzeko asmorik dutenik.
- Mugaren bi aldean artean **egitura administratiboari dagokionez dauden asimetriak** lankidetzaz sendoagoa zailtzen dute, bai eta ekimen lokalak abian jartzea ere.
- EAE-ko gobernuak bere esku dituen ardurek enplegu alorrean jarduera propioak garatzeko aukera ematen dute, baina **Jaurlaritzaren enplegu politikan ere ez da mugaz gaindi eragiteko xederik adierazten.**
- **Egun enplegu politiken diseinu zein inplementazioan funtsezko desberdintasun bat dago bi lurralde eremuen artean.** Iparraldean enplegu politikak babes ekonomiko askoz handiagoa du eta pertsonalizazio maila handiagoa da. Hegoaldean, berriz, ahalegin ekonomikoa txikiagoa da, pertsonalizazio maila ere bai eta onura fiskalak zein enpresa sustapena dira gehien bultzatzen diren alorrak.
- Enplegu sustapenean egiten den ahalegin ekonomiko desberdinak pentsa arazten digute **Iparraldean bertako premiei erantzun egokiagoa ematen zaiola** ahalegina ere nabarmen handiagoa baita.
- **Europako Batasunak sustatzen duen lan mugikortasunak Euro-hiriaren kasuan oztopo nabarmenak ditu** izan ere, estatuen enplegu

politikak tokiko populazioari bakarrik erantzuten baitiote eta ez auzoan bizi direnei. Euro hiria eremu urbano gune anitza baina bakarra delakoan, egoera hau gainditzeko bideak behar dira.

“Lan mugikortasunari buruzko delphi azterketa Baiona-Donostia euskal Euro-hiriaren baitan”

Ikerketa honetan parte hartu duten adituen arabera, euskal Euro-hiriak lan merkatuaren mailan harreman estuagoa lortzeko oportunitate handiak eskaintzen ditu.

Adituen iritziz Europako Batasunak adierazitako politikak norabide honetan doaz eta etorkizunean lagungarri gertatuko dira. Besteak beste, enpleguaren kalitatean hobekuntza eta homogeneizazioa ekarriko dituelako.

Hegoaldeko eta Iparraldeko errealitateak desberdinak dira baina adituon ustez elkarren osagarri izatera hel daitezke. Bide hau egiten lagun dezaketen aldeko elementu ugari ikusten dute Euro-hiriaren baitan:

- Formakuntza profesionalerako eskaintza zabala
- Premia handiak dituen lan merkatua
- Jarduera ekonomiko oso dibertsifikatuak
- Hezkuntza sare zabala maila guztietan eta eskaintza aberatsa
- Milaka lagunez osatutako lan merkatua

Baina mugaz gaindiko lan merkatuaren alorrean integrazioa zailtzen duten faktoreak ere asko eta konplexuak direla azpimarratzen dute:

- Errealitate linguistikoa eta ikastetxeek ingelesaren alde egindako hautua auzo hizkuntzaren alde egin beharrean.
- Araudi desberdinak, besteak beste, gizarte segurantzari dagokionez.
- Soldata desberdinak
- Lanaren inguruko kultura desberdinak

- Hezkuntza sistema desberdinak, batez ere, edukiei eta akreditazioei dagokionez.
- Mugikortasunerako zailtasunak, garraio publikoaren sare ahula, errepideen dentsitate handia...
- Arazo politikoak, besteak beste, administrazioen bultzada falta.
- Aurreiritzi politikoak, besteak beste, abertzaletasunarekiko.

ONDORIO NAGUSIAK

Egindako azterketek proiektuaren galdera nagusiari erantzun desberdinak eman dizkiote. Ikus ditzagun ondorioak:

1.- ORAIN Euskal Euro-hiriak mugaz gaindiko lan merkatua sortzeko oportunitate interesgarriak eskaintzen ditu.

Euskal Euro-hiria ekonomikoki dinamismo handikoa da, baina bere egitura demografikoa defizientea da lurralde osoan. Gaur egun dagoeneko erretreta hartutako langileen lekua edo sortzen diren lanpostu berriak osatzeko langile falta nabaria da eremu osoan. Beraz, lan merkatua badago eta bertako populazioarekin ezin da asetu. Edonola ere, promozio bila dabilzan langileei ere mugaren beste aldean aukerak sortuko zaizkie. Egoera hau bereziki interesgarria gerta daiteke Iparraldeko profesionalentzat, asko baitira formazio maila altua izan arren gaur egun Euro-hiritik kanpo lanean ari direnak eta itzultzeko gogoz direnak.

Merkatu ekonomikoari dagokionez, Hegoalde eta Iparraldearen artean errealitate bakar bat gorpuzten ari dela esan daiteke (gaurkoz, aisialdi eta merkataritzaren alorrean batez ere), beraz, Iparraldeak Hegoaldean gero eta bezero gehiago du eta Hegoaldeak Iparraldean ere bai. Merkatu desberdinak izan arren elkarren arteko osagarritasunerantz doazela ikusten da. Fenomeno honek enpresak mugaren beste aldeko bezeroak bilatzera eraman ditu azken urteotan eta horrek berorrek mugaren beste aldeko langileak bilatzera eraman ditzake.

Euskarak Hegoaldeko lan munduan eta populazioan daraman ibilbide positiboak lan merkatuan aldaketak ekar ditzake, besteak beste, bezero euskaldunak euskaraz artatzeko gai diren lanpostuen sorrera eragiten hasi delako. Bertako bezeriarekin lan egiten duten enpresek errealitate horri erantzutekotan Iparraldeko zein Hegoaldeko profesional euskaldunak bilatzen dituen lan merkatua indartu egingo da hurrengo urtetan.

Halaber, Euro-hiriaren kokapen geo-estrategikoak (Europako errepide bidezko trafikoaren pasagune izateak) eta itsasoari begira egoteak hainbat alorretan elkarren artean erantzun beharreko erronkak ekarriko dituzte. Besteak beste pertsona eta salgaien trafikoari soluzioak eman beharra, turismorako eskaintza bateratu beharra, naturgune eta mendialdearen kudeaketa komuna, katastrofe naturaletarako emergentzia zerbitzuak auzolanen baliatu behar izatea, garraio publikoaren sarean intermodalitatea bermatzea... Hauek guztiek ez dute lan merkatuan eragin zuzenik, baina mugaz gaindiko komunitate bat sendotzea ekar dezakete.

2.- GEROAN oportunitate horiek gauzatzeko aukera berriak sortuko dira.

Europako Batasunak hainbat arlotan indarrean jarritako politikak mugaz gaindiko lan merkatua eta mugikortasuna sustatzen dute. Beraz, politika horiek lurralde eremu honetan indarrean jartzen badira aukera interesgarriak sortuko dira. Mugaz gaindiko eremu ekonomikoaren sendotzea, kalitatezko lan

merkatua baten sustapena, ezagumenduan sortutako ekonomiarekin egindako apustua... horiek guztiek Euro-hirian aplikatzeko baldintza ezin egokiagoak ditugu.

Gainera, mugaren bi aldetako eragile instituzionalen arteko elkarlana abian da, besteak beste, osasun zerbitzuen alorrean. Eragile sozial zein unibertsitarioen arteko elkarlana ere hasi da emaitzak ematen nahiz eta oraindik bide luzea dagoen egiteko. Konferentzia Euro-erregionala, Euro-hiriaren agentzia, Txingudiko mankomunitatea... kohesio maila handitu eta elkarlanerako bide berriak ekarriko dituzte, baita lan merkatuan ere. Izan ere, Europako Batasunak abian jarritako EURES egitasmoak horretara eraman beharko gintuzke.

Lan merkatuari dagokionez zenbait faktorek eragin garrantzitsua izan dezaketela esan daiteke. Gazteen eta emakumeen arteko tasak negatiboak dira eta urrun gaude Lisboako Estrategiak proposatutako indizeak betetzetik. Etorkizunean sektore hauek lan merkatura inkorporatzeko prozesu bat biziko dugu. Prozesu horretan, mugaz gaindiko mugikortasuna sustatzen asmatuz gero sortzera doan lan eskaintzari erantzuteko aukera handiagoak izango ditugu, batez ere, Iparraldeari dagokionez, kanpora joan beharrik izan ez dadin.

Ezagumenduan oinarritutako ekonomiak, halaber, formazio aukerak sendotzea eskatuko du. Iparraldeak alor honetan duen gabezia estrukturalari erantzun egokia eman diezaioke Hegoaldearekin elkarlanean asmatzen bada. Bolognan abian jarritako prozesuak eragingo duen titulazio eta formazio planen bateratzea horretan lagungarri gertatuko da.

3.- Baina, zailtasunak ere handiak dira.

Formazio mailari erreparatuz ikusten dugu oro har, populazioa formazio maila handikoa dela, lan merkatuak aldiz, formazio maila baxuko lanpostuak eskaintzen ditu, Iparraldean batez ere. Mugaz gaindiko mugikortasuna sustatu ezean formazio altuko populazioa galduko dugu eta bertako lan merkatuak ez dio erantzungo bertako populazioaren ezaugarriei.

Jarduera ekonomikoetan 3. sektorea nagusitzen da, eta lan merkatuak gaur egun sektore honi lotutako profil baxuko lanpostuak eskaintzen ditu. Hegoaldean industriak bestelako aukera ere eskaintzen dituen arren, behin-behinekotasun handia dago lanpostu berrietan eta horrek ez du batere erakargarri egiten Hegoaldeko lan merkatua Iparraldekoentzat. Lisboako estrategiaren bidetik lanaren kalitatea hobetzeko hartutako bideak diferentzia horiek arintzea ekar dezake eta horrek aukera berriak sortuko ditu. Baina oraingoz aukera hau urrun dago.

Bi administrazio desberdin daude elkarren ondoan Frantzia eta Espainiakoa. Horren eraginez diferentziak handiak dira. Indarrean dauden enplegu politiken artean ere diferentziak handiak dira. Iparraldeko herritarrek jasotzen duten babes maila Hegoaldekoaren aldean handiagoa da eta gainera ez dago Euro-hiria aintzat hartuko duen enplegu eta formazio programarik. Honela, desberdintasun administratiboek ez dute erakargarri egiten Hegoaldera lan bila joatea, eta gainera lanpostu eskaintzaren inguruko informazio faltak mugaren beste aldeko errealitatea ezezagun bihurtzen dute lan bila dabiltzanentzat. EURES egitasmoa gauzatzeak alor honetan aldaketa interesgarriak ekar litzake, baina horrek ere oraindik eragin apala du alor honetan.

Mugikortasuna. Gaur egun lana edo formazio profesionalarekin lotutako mugikortasuna txikia da. Aisialdia eta erosketekin lotutakoa da mugikortasuna ia erabat. Euro-hiriaren idiosinkrasiari erantzuten dion garraio sistema bat ez izateak horretan eragiten du. Besteak beste, muga administratiboak garraio sistema desberdinak eteten ditu, ez daude interesgune nagusiak lotuta, ez dago erabilera bonifikatzeko sistema amankomunik eta desplazamenduek denbora luzea hartzen dute. Baldintza hauetan eta errepideek ordu nagusietan kolapsotik gertu egoteak asko zailtzen du desplazamendua eta beraz, mugaz gaindiko enplegua.

Bestalde, ikastetxeetako hizkuntza formazio programan Euro-hirian mintzatzen diren hizkuntzek leku gutxi dute. Ingelesa nagusitu da eskoletan. Mugaren beste aldekoekin komunikatzea helburu izango duen formazio

egitasmoak behar dira baldin eta hurrengo belaunaldiek bertan lana topatzeko zailtasunak gutxitzea nahi baldin badugu.

Muga psikologikoa oraindik oso handia da. Mugaren beste aldeko errealitatea (juridikoa, ekonomikoa, normatiboa...) ezezaguna da eta horrek lana bilatzerakoan herritarrek Euro-hiritik kanpoko eskualdetara bultzatzen ditu. Iparraldean egoera hau bereziki larria da, gazte gehienek, batez ere goi ikasketak egin nahi dituztenek sorlekua utzi behar izaten dutelako. Gazteez gain helduekin ere antzeko egoera bizi dugu eta lan promoziorako aukerak Euro-hiritik kanpo bilatzen dira askotan mugaren beste aldean zer dagoen ezagutzen ez delako, edo gutxietsi egiten delako.

Arlo instituzionalean mugaren bi aldeetako agintarien artean asimetria nabarmena dago. Gainera, Iparraldearen kasuan instituzio propiorik ez izateak asko zailtzen du bertako interesak identifikatu eta exekutatzea. Baiona-Angelu-Biarritz udal partzuergoak zailtasun nabarmenak ditu lan hori egiteko, eta Akitaniako Kontseilu Orokorrari Euro-hiria urrunegi gelditzen zaiola dirudi. Europako Batasuneko muga eremuetan garatu diren politikak ikusita, badirudi gure kasuan instituzioen aldetik bultzada falta dagoela, nagusiki Frantzia eta Espainiako estatuen aldetik.

Azkenik, lan merkatua dinamizatuko lukeen lan eskaintza zerbitzurik ez dago, informazioa ez dago herritarren eskura egundo tokian tokiko enplegu zerbitzu eta informazio puntuetan.

4.- Etorkizunean hainbat alorretan lan egin beharko da mugaz gaindiko lan mugikortasuna sustatzeko.

Ikerlari eta adituek zenbait ideia aipatu dituzte:

- Instituzioen arteko elkarlan hitzarmenak lan merkatu komun bat gorpuztu asmoz urte anitzeko programa zabal bat abian jar dadin.
- Lana bilatzeko informazio eta orientazio zerbitzuen irizpideak egokitzea, mugaz gaindiko errealitatearen berri emateko teknikariak formatuz, informazioa eskainiz...
- Orientazio zerbitzuak Euro-hiriak duen formazio eskaintza osoaren berri emateko egokitzea bai lanbide heziketan, bai unibertsitate mailan nahiz langileen lan formazio programetan.
- Mugikortasuna sustatzea. Bai garraio publikoaren sare intermodal komunaren bidez, bai erabilera bonifikatuz, bai mugaren beste aldera formatzera doanari desplazamendurako erraztasunak emanez.
- Bertako hizkuntzak ikasteko azpiegitura sortzea bai herritarrentzako hizkuntzen irakaskuntzan, bai ikastetxeetako ikasketa planetan.
- Enplegatu eta enplegatzaileak mugaren beste aldeko errealitateari eta bertan izan ditzaketen aukerei buruz formatuz eta informatuz.
- Errealitate hauek guztiak ikertu eta garatzeko laguntza publikoak eskainiaz eragile ekonomiko eta sozialei.

EPILOGOA

Egindako lanak agerian utzi digu lan merkatuari lotutako mugikortasuna errealitate bat izan daitekeela etorkizunean, aukera hau indartuko duten oportunitate berriak badatozela ikusten da. Baina gure kasuan, zoritxarrez, mugako beste eskualde batzuetan baino makalago doa elkarlana. Makaltasun hau Paris eta Madrilek bultzatua dela uste zabaldua da Euro-hirian.

Egora honetan, Europako Batasunaren egitasmoa indarrrik gabe gelditzen da euskal Euro-hirian nahiz mugako gainerako euskal eskualdeetan. Oinarri kultural komuna izan arren, badirudi beste inon baino zailagoa dela elkar hartuta aurrera egitea.

Zoritxarrez, mugak bertako herritarren eta eragileen sentsibilitatean erro sakonak bota ditu. Zailtasun administratiboekin batera ezjakintasuna eta muga psikologikoak gainditzetik urrun gaude gaur egun oraindik. Horretan ere bada zer egina.

Bizi dugun egoerak, ordea, elkarlana ezinbestekoa egiten du. Arazo komunak ditugu eta ez nolanhikoak (trafikoa, kostaldea, mendialdea, bezeroak, antzeko interesak...). Beraz, ez dirudi erraza denik egoera honi aurre egitea

elkarlan bideari ekin gabe. Gainera, Iparraldearen kasuan, sufritzen dituen gabezia estrukturalak ez dute beste aukerarik uzten, urtero milaka dira sorlekua betiko uzten duten gazteak formazio eta lan bila. Euro-hiria alor honetan bere populazioari alternatiba bat eskaintzeko gai izan behar du.

Beraz, elkar ezagutzea eta elkarren artean arazoan aterabideaz gogoeta egiteak hartu beharreko bidea egiteko indarra eman diezagukete. Aukerak identifikatu eta gainditu beharreko zailtasunak non dauden ikusteko bidea egin behar dugu.

ERANSKINAK:

Egindako txostenen ondorioak

I eranskina:

“Euro-hiriak biltzen dituen udalerrien argazkia”

TXOSTENAREN IZENBURUA: : "Euro-hiriak biltzen dituen udalerrien argazkia"

EGILEA: Aztiker Soziologia Ikergunea SL

EDUKIAK:

- 1 BIZTANLERIAREN EZAUGARRI OROKORRAK
 - 1.1 Biztanleriaren banaketa
 - 1.2 Biztanleriaren sexu eta adin egitura
 - 1.3 Biztanleriaren zahartzea
 - 1.4 Jaiotzak, heriotzak eta ugalkortasuna
 - 1.5 Eskolatze tasak
 - 1.6 Hizkuntza ereduak irakaskuntzan
 - 1.7 Titulazioa
- 2 LAN MERKATUA ZENTSUAREN ARABERA
 - 2.1 Jarduera tasa
 - 2.2 Enplegu tasa
 - 2.3 Langabezia tasa
 - 2.4 Lan egoera
 - 2.5 Egoera profesionala
 - 2.6 Sektore ekonomikoa
 - 2.7 Lantokiaren kokalekua
 - 2.8 Lantokira joateko erabilitako garraiobidea
- 3 LAN MERKATUA ZENTSUAREN ARABERA: ALDAGAI GARRANTZITSUENEN LABURPEN TAULA
- 4 ONDORIOAK
- 5 ERANSKINA: LANGABEZIA INKESTAK BESTE EREMU BATZUETAN
 - 5.1 Jarduera eta langabezia tasak
 - 5.2 Langabeak
 - 5.3 Okupatuak

TAULA ESTADISTIKOAK:

1. Biztanleria, azalera eta dentsitatea. Euskal Herria 2006
2. Biztanleria, azalera eta dentsitatea. Baiona-Donostia, 2006
3. Biztanleria, azalera eta dentsitatea. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak 2006
4. Adin egitura eta zahartze indizea. Euskal Herria, 2001
5. Adin egitura eta zahartze indizea. Baiona-Donostia 2001
6. Adin egitura eta zahartze indizea. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001

7. Jaiotza eta heriotza tasak eta Ugalkortasun indize sintetikoa. Euskal Herria, 2005
8. Jaiotza eta heriotza tasak eta Ugalk. ind. sint. Baiona-Donostia, 2005
9. Jaiotza eta heriotza tasak, eta Ugalkortasun indize sintetikoa. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2005
10. 16 urtetik gorako biztanleen eskolatzeko tasak, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Herria, 2001
11. 16 urtetik gorako biztanleen eskolatzeko tasak, sexuaren eta adinaren arabera. Baiona-Donostia, 2001
12. Haur eta lehen hazkuntzan D ereduan matrikulatuak. Euskal Herria, 1990/91-2005/06
13. Lortutako titulazioa. Euskal Herria, 2001 (%)
14. Jarduera tasa, sexuaren arabera (16-64). Euskal Herria, 2001
15. Jarduera tasa sexuaren arabera (16-64 urte). Baiona-Donostia, 2001
16. Jarduera tasa sexuaren arabera (16-64 urte). Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001
17. Jarduera tasa, adinaren eta sexuaren arabera. Euskal Herria, 2001
18. Jarduera tasa, adinaren eta sexuaren arabera. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001
19. Enplegu tasa, sexuaren arabera (16-64). Euskal Herria, 2001
20. Enplegu tasa sexuaren arabera (16-64 urte). Baiona-Donostia, 2001
21. Enplegu tasa sexuaren arabera (16-64 urte). Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001
22. Enplegu tasa, adinaren eta sexuaren arabera. Euskal Herria, 2001
23. Enplegu tasa, adinaren eta sexuaren arabera. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001
24. Langabezia tasa, sexuaren arabera (16-64). Euskal Herria, 2001
25. Langabezia tasa sexuaren arabera (16-64 urte). Baiona-Donostia, 2001
26. Langabezia tasa sexuaren arabera (16-64 urte). Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001
27. Enplegu tasa, adinaren eta sexuaren arabera. Euskal Herria, 2001
28. Langabezia tasa, adinaren eta sexuaren arabera. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001
29. Biztanleria okupatuaren lan egoera. Euskal Herria, 2001 (%)
30. Biztanleria okupatuaren lan egoera. Baiona-Donostia, 2001
31. Biztanleria okupatuaren baitan langileria ez finkoa. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001 (%)
32. Biztanleria okupatuaren egoera profesionala. Euskal Herria, 2001 (%)
33. Biztanleria okupatuaren egoera profesionala. Baiona-Donostia, 2001 (%)

34. Okupatuak egoera profesionalaren arabera. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001
35. Biztanleria okupatua sektore ekonomikoaren arabera. Euskal Herria, 2001 (%)
36. Okupatua sektore ekonomikoaren arabera. Baiona-Donostia, 2001
37. Biztanleria okupatua sektore ekonomikoaren arabera. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001
38. Biztanleria okupatuaren lantokiaren kokalekua. Euskal Herria, 2001 (%)
39. Biztanleria okupatuaren lantokiaren kokalekua. Baiona-Donostia, 2001
40. Lantokira joateko erabilitako garraiobidea. Euskal Herria, 2001 (%)
41. Lantokira joateko erabilitako garraiobidea. Baiona-Donostia, 2001 (%)
42. Jarduera tasa sexuaren eta adinaren arabera. EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005 (16-64 urte)
43. Langabezia tasa sexuaren eta adinaren arabera. EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005 (16-64 urte)
44. Langabeak, lan bila daramaten denboraren arabera. EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005
45. Langabeak, lan bila daramaten denboraren, sexuaren eta adinaren arabera. PIRINIO ATLANTIKOAK 2005 (%)
46. Langabezia tasa, lan bila daramaten denboraren arabera. EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005
47. Langabeak, lortutako ikasketa mailaren eta sexuaren arabera. EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005 (%)
48. Langabeak, lortutako ikasketa mailaren eta adinaren arabera. PIRINIO ATLANTIKOAK 2005 (%)
49. Okupatuak, lortutako ikasketa mailaren eta sexuaren arabera. EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005 (%)
50. Okupatuak, lortutako ikasketa mailaren eta adinaren arabera. PIRINIO ATLANTIKOAK 2005 (%)
51. Okupatuak, egoera profesionalaren eta sexuaren arabera. EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005 (%) 63
52. Okupatuak, egoera profesionalaren eta adinaren arabera. PIRINIO ATLANTIKOAK 2005 (%)
53. Okupatuak, lanpostuaren arabera. EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005 (%)
54. Okupatuak, lanpostuaren eta adinaren arabera. PIRINIO ATLANTIKOAK 2005 (%)

EGINDAKO LANAREN AURKEZPENA:

Lan honen helburua euro-hiriak barnebiltzen dituen udalerrien informazio estatistikoa eskuratzea izan da, hots, biztanleriaren egiturarekin eta lan merkatuarekin zerikusia duten aldagaiak biltzea.

Lan hori burutzeko, iturri estatistikoek eskaintzen duten informazioa erabili dugu; hain zuzen, biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren berezko mugimendua. Zehazki hauek izan dira erabili ditugun iturriak:

- Datu Talaia web gunea www.datutalaia.net
- Aztiker: "*Euskal Herria datuan talaiatik, 2006*" liburua.
- INSEE, EUSTAT eta INE: biztanleria zentsuak, biztanleriaren berezko mugimendua eta irakaskuntza estatistikak.
- EUROSTAT: Europako informazioa; biztanleria zentsuak, biztanleriaren berezko mugimendua eta enpleguaren datuak.

Datuak atal hauetan banatuak aurkezten ditugu:

- Biztanleriaren ezaugarri orokorrak
- Lan merkatuaz zentsuek eskaintzen duten informazio esanguratsuena
- Informazio esanguratsuena biltzen duen laburpen taula
- Ondorioak
- Eranskina: langabezia inkestetan oinarrituta gure inguruko beste eremu batzuetako informazio estatistikoa.

Esan dugun bezala lan merkatuaren datuak zentsuetatik jaso ditugu. Kontziente gara lan merkatuaren gaia lantzeko zentsuak ez direla iturri egokiena; alde batetik, zentsuen berriazko helburua ez delako lan merkatua aztertzea, eta bestetik, azken zentsua 1999. urtean egin zelako Ipar Euskal Herrirako eta 2001. urtean Hego Euskal Herrirako, eta beraz, datuak egunez egun aktualitatea galtzen ari direlako. Honek, batez ere, langabezia tasei eragiten die. Lan merkatuaren ezaugarri orokorrak ez dira hain denbora laburrean aldatzen, baina langabeziaren fenomeno oso dinamikoa izan ohi da eta egunerokotasunak badu bere garrantzia.

Horiak horrela izanda ere, zentsuetako informazioa erabiltzeko irizpidea arrazoi nagusi hauengatik hartu dugu: alde batetik, Baiona-Donostia euro-hiriko informazioa eskuratzeko bitarteko bakarra delako; informazioa fidagarria, armonizatua eta bateragarria izatea nahi badugu behintzat. Bestetik, konparaketak egiteko aukera zabaltzen dutelako eta Euskal Herriko lan merkatuaren berezitasunak aztertzea ahalbidetzen digulako.

Ondoren, eranskinean, lan merkatua aztertzeko bitarteko egokiagoa diren enplegu inkestetan oinarritutako informazioa aurkezten dugu eremu ezberdinetarako (EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak); datu hauek zentsuek eskainitako informazioa osatzeko eta kontrastatzeko balioko digute.

ONDORIO NAGUSIAK:

Demografiari dagokionez...

Euro hiria osatzen duten 42 udalerriak Euskal Herriko bi herrialdeetan banatuak daude: Gipuzkoan, 17 udalerrri (euro-hiriko biztanleen %68,4) eta Lapurdin, 25 udalerrri (%31,6). Euro-hiriko biztanleriaren erdia baino gehiago, %58,2 bost udalerrri hauetan biltzen da: Donostia, Irun, Baiona, Angelu eta Errenteria.

Baiona-Donostia euro-hirian Euskal Herriko biztanleriaren %20,7 biltzen da; %14,2 Gipuzkoan eta %6,6 Lapurdin.

Euro-hiriko ezaugarri demografiko nagusienak hauek dira:

- **Dentsitate handiko ingurunea:** 690,5 pertsona bizi da km² bakoitzeko. Kopurua hau Euskal Herrikoa (143,9), Gipuzkoakoa (349,4) eta Lapurdikoa (270,2) baino handiagoa da. Eta Europako Batasuneko batez bestekoa (114,3) baino dezente handiagoa.
- **Biztanleriaren zahartze prozesu nabarmena jasan duen ingurunea:** Baiona-Donostia euro-hiriko zahartze indizea 128koa da, hots, 128 pertsona heldu (60 urtetik gora) bizi da 100 gazte (20 urtetik behera) bakoitzeko. Indize hau Euskal Herriko batez besteko indizearen antzekoa da, baina Europako Batasuneko estatuetakoa batez bestekoa (90,8) baino dezente handiagoa da. Ez dago Batasunean estatu bakar bat ere Euskal Herriko eta Baiona-Donostiako indizeak gainditzen dituen.
- **Jaiotza tasa txikiak ahalbidetu dute zahartze prozesu hori:** 2005. urtean mila biztanleko 9,6 haur jaio ziren Baiona Donostia euro-hirian. Euskal Herriko,

eta baita Gipuzkoa eta Lapurdiko, batez bestekoaren antzeko kopurua, baina Europako Batasuneko batez bestekoa (10,5) baino puntu bat txikiagoa. Soilik Batasuneko 8 estatuk dute Baiona-Donostiak eta Euskal Herriak baino tasa txikiagoa. Dena den, jaiotzak ugaritzen ari dira Euskal Herrian azken urteetan¹, eta ziurrenik horrek ere eraginik izango du Baiona-Donostia euro-hirian.

- **Gaztetxoenen eskolatze tasa handia:** Adin tarte gazteenetan (15-19) Baiona-Donostiako eskolatze tasa (%77,0) Euskal Herriko batez bestekotik (%69,7) gora dago. Batez ere, Lapurdiko udalerrietako tasa altuen eraginez. Adin tarte horretarako Gipuzkoako tasa orokorra %69,0koa da, aldiz, Lapurdikoa %91,3.
- **Gaztetxoek geroz eta gehiago ikasten dute D ereduan:** Ez dugu euro-hiriko daturik, baina, Gipuzkoan, 1990-1991 ikasturtetik 2004/2005 ikasturtera, haur eta lehen hezkuntzako (11/12 urte arte) ikasleen artean D ereduan ikasten dutenak erdia baino gutxiago izatetik ia $\frac{3}{4}$ izatera igaro dira. Eta, Ipar Euskal Herrian, %3,5 izatetik %6,1 izatera.
- **Ikasketa maila altuko biztanleria duen ingurunea:** Baiona Donostia euro-hiriko udalerrietan, batez beste, bigarren mailako ikasketak II dituztenak (%28,2) eta hirugarren mailako ikasketak dituztenak (%16,1) gehiago dira Euskal Herrian (%23,3 eta %15,0) batez beste direna baino. Gipuzkoako batez bestekoa Euskal Herrikoaren parekoa denez eta Lapurdikoa handiagoa, esan dezakegu ere, udalerrietako daturik ez dugun arren, Lapurdiko udalerrietako batez bestekoak handitu duela Baiona-Donostia euro-hiriko batez bestekoa.

Zentsuek erakusten diguten lan merkatuari dagokionez (2001 urtea)...

Orokorrean, Baiona-Donostia euro-hiria, lan merkatuaren gain, Euskal Herriko batez besteko balioetatik gertu topatu dugu, berezitasun batzuekin, batez ere Lapurdiko udalerrien balioek eragindako berezitasunak. Ikus dezagun zehatzago:

¹ Aztiker, "Euskal Herria datuen talaiaitik, 2006" Ed. Txalaparta, 2006: 4. atala 'Jaiotzak eta Heriotzak'.

Jarduera, enplegu eta langabezia tasak

- **Jarduera tasetan antzeko balioak:** zentsuko datuen arabera, euro-hiriko batez besteko jarduera tasa (%70,0) Euskal Herriko tasaren (%68,6) eta Europako Batasuneko tasaren (%67,8) antzekoa da.
- **Emakumezkoen jarduera tasa gizonezkoena baino nabarmen txikiagoa:** aztertutako eremu guztietan eta adin tarte guztietan emakumezkoen jarduera tasa dezente txikiagoa da gizonezkoena baino. Dena den, aldea txikiagoa da Lapurdin Gipuzkoan baino. Europako Batasunean soilik 5 estatutan da aldea Euskal Herrikoa baino handiagoa, gehienak Mediterraneo aldekoak: Malta, Grezia, Espainiako estatua, Italia eta Irlanda.
- **Euro-hiriko gazteenen jarduera tasa apur bat txikiagoa:** gazteen jarduera tasa antzekoa da euro-hirian (%59,3) eta Euskal Herrian (%61,2). Halere, gazteenen (16-29) jarduera tasa apur bat txikiagoa da Baiona-Donostia euro-hirian Lapurdiko tasa dezente txikiagoa delako (%52,0). Europako Batasuneko gazteenen jarduera tasa ere (%59,0) euro-hiriko jarduera tasaren antzekoa da; biztanle gazteenen artean (16-29) Batasuneko 11 estatutan jarduera tasak handiagoak dira Baiona-Donostia euro-hirian baino.
- **Enplegu tasetan ere antzeko balioak:** Baiona-Donostia euro-hiriaren batez besteko enplegu tasa %61,6koa da. Portzentaje hori Euskal Herriko portzentajearen (%60,8) oso antzekoa da. Gipuzkoako enplegu tasa, berriz, apur bat handiagoa da (%63,1) eta apur bat txikiagoa Lapurdikoa (%59,2). Antzekoa da ere, Europako Batasuneko batez besteko enplegu tasa (%60,3).
- **Emakumezkoek enplegu tasa txikiagoa, aldea handiagoa Euskal Herrian eta antzekoa Batasunean:** enplegu tasa ere nabarmen txikiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino, eremu guztietan. Aldeak antzekoak dira euro-hirian eta Europako Batasunean; Euskal Herrian, berriz, aldeak nabarmenagoak dira. Batasuneko 6 estatutan soilik da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea Baiona-Donostia euro-hirian baino handiagoa: Maltan, Grezian, Espainiako estatuan, Italian, Luxenburgon eta Zipren.
- **Gazteenen enplegu tasa %50etik behera:** Adin tarte gazteenetan enplegu tasa ozta-ozta iristen da biztanleen erdira. Lapurdin, gazteenen artean enplegu tasa dezente txikiagoa da gainontzeko eremuetan baino. Herrialde horretan ez aktiboak dezente gehiago direlako, batez ere. Gogoratu herrialde horretan 15-19 urte bitarteko biztanleen eskolatzeko tasa %90etik gorakoa zela. Gazteenen enplegu tasa txiki horrek, euro-hiriko enplegu tasa ere txikitzen du.

Batasuneko batez besteko balioak ere antzekoak dira. Halere, biztanle gazteenen artean (16-29) Batasuneko 12 estatutan enplegu tasak handiagoak dira gurean baino.

- **Antzeko langabezi tasak:** langabezia tasak %11 ingurukoak ziren 2001 urte inguruan, bai gurean eta baita Europako Batasunean ere. Dena den, eranskinean erantsi ditugun datuen arabera, tasa horrek nabarmen egin du behera azken urteetan. 2005. urtean langabezia tasa %7,3 zen EAEn, %5,6 Nafarroa Garaian eta %9,2 Pirinio Atlantikoetan; Europako Batasunean ere %8,9ra jaitsi da 2005. urterako; beraz, datu zehatzik ez badugu ere, badirudi Euskal Herriko langabezia tasa Batasuneko baino txikiagoa dela egun.
- **Emakumezkoen langabezia tasa askoz handiagoa:** Kasu guztietan langabezia tasa handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino, eta ezberdintasunak antzekoak dira, batez beste, Euskal Herrian eta Baiona-Donostia euro-hirian. Eta baita, Gipuzkoan eta Lapurdin ere. Aldiz, Europako Batasunean emakumezkoen langabezia tasa handiagoa bada ere, aldea askoz txikiagoa da. Gainera, emakumezkoen langabezia tasa gizonezkoena baino handiagoa izatea ez da Europako Batasunean orokortua dagoen fenomeno bat; orokorren bi sexuen arteko aldea txikia da langabezia tasari dagokionez. Eta 9 estatuetan gizonezkoen langabezia tasa handiagoa da emakumezkoena baino, eta beste 9 estatuetan aldea ez da %1era iristen. Aldeak, euro-hirian bezain handiak soilik Espainiako Estatuan eta Italian dira.
- **Gazteenen langabezia tasa handiagoa:** Orokorrean gertatzen den bezala, biztanleria zenbat eta gazteago, langabezia tasa orduan eta handiagoa da. Euro-hiriak Euskal Herriko antzeko baloreak ditu adinkako langabezia tasetan, baina Lapurdin bereziki nabarmena da adin tarte gazteenetan (16-29) ematen den langabezia tasa handia, %23,2; Euskal Herrikoa baino ia 6 puntu handiagoa, eta Gipuzkoakoa baino ia 9 puntu handiagoa. Biztanleria helduagoaren artean, diferentzia hori dezente murrizten da. Daturik ez dugun arren, pentsa dezakegu egun portzentaje horiek txikiagoak izango direla, baina aldeak mantendu egingo direla. Europako Batasunean adin tarte guztietan da langabezia Euskal Herrian baino apur bat txikiagoa. Gazteenen langabezia tasa Batasunean ere handiagoa bada ere.
- **Ipar Euskal Herriko gazteenen langabezia tasa altuak:** azpimarratu nahi dugu, bestalde, egungo Ipar Euskal Herriko datu zehatzik ez ditugun arren, ditugun datuek, bai zentsuetatik jasotakoek eta baita Pirinio Atlantikoari buruz jasotakoek ere, Ipar Euskal Herriko gazteenen langabezia tasak oso handiak

direla adierazten digutela. Alde batetik, ikusi dugu zentsuko datuen arabera 15-29 urte bitartean Lapurdiko gazte aktiboen %23,2 langabezian zegoela 2001. urtean, eta bestalde, Pirinio Atlantikoetako datuen arabera, 25-34 urte bitarteko gazte aktiboen langabezia tasa %23,4koa da. Hego Euskal Herrian, berriz, 2005eko datuen arabera, 16-24 urte bitarteko gazte aktiboen langabezia tasak dezentea handiak badira ere, 25-34 urte bitarterako beheranzko joera hartua dute; eta inondik ere ez dira iristen Lapurdiko tasetara.

- **Langabezia tasei buruzko oharra:** esan dugun bezala, langabezia tasen azken datuak aztertuta azken urteetan Euskal Herriko langabezia tasak behera egin dutela ondorioztatzen da; Europako Batasuneko tasetatik behera. Eranskinean aurkezten ditugun datuetan ikusten da beherakada emakumeetan eta gizonezkoetan ere eman dela eta adin tarte guztietan. Dena den, aipatu ditugun berezitasunak mantentzen dira; alegia, gazteenen tasa handiagoak eta emakumezkoen tasa dezente handiagoak.

Biztanleria okupatua; lan baldintzak

- **Behin-behinekotasun tasa handiagoak:** Baiona-Donostia euro-hirian biztanleria okupatuaren bostena langile ez finkoa da. Portzentaje hau Lapurdin %13,1era jaisten da, Europako Batasuneko batez bestekora gerturazten delarik; bertan, ez finkoen portzentajea %12,4 da, Euskal Herrikoa (%22,0) eta Baiona-Donostia euro-hiriko baina dezente txikiagoa. Europako Batasunean, Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik soilik Espainiako Estatua (%32,2) dugu; eta, euro-hiriko portzentajearen gainetik Espainiako Estatua eta Portugal, besterik ez.
- **Okupatuen egoera profesionalaren arabera antzeko banaketa:** egoera profesionalaren arabera antzeko banaketa ematen da eremu guztietan, Euskal Herrian zein Europako Batasunean; salbuespen batzuekin, Baiona-Donostia euro-hirian proportzioan gehiago dira administrazio lanetan eta zerbitzuetan ari direnak, Euskal Herriko batez bestekoa baina (%28,5 euro-hirian eta %24 Euskal Herrian). Lapurdin aldea handiagoa da; Lapurdiko langileen herenak du alor horretan lanpostua. Eta, gutxiago dira, esku-langile kualifikatu eta ez kualifikatuak; Euskal Herrian biztanleria okupatuaren %40,1 dira, eta aldiz, Baiona-Donostian %33,2. Gutxiago Lapurdiko aldean (Euro-hiriko Lapurdiko udalerrietako batez bestekoa %22,2), eta gehiago Gipuzkoako aldean (%37,4 da Gipuzkoako euro-hiriko udalerrietako batez bestekoa)

- **Euro-hirian zerbitzuen sektoreak leku berezia:** Baiona-Donostia euro-hiriaren lan merkatuan oso garrantzitsua da zerbitzuen sektorea; hamar okupatuetatik 7 sektore honetan ari da lanean. Zerbitzuen gailentasun hori nabarmenagoa da oraindik ere Lapurdin, bertan hamarretik ia 8 ari da sektore honetan. Azpimarratu behar dugu, Baiona-Donostia euro-hirian zerbitzuetan enplegatutakoak proportzioan Batasunean baino gehiago direla (%70,6 euro-hirian eta %64,0 Batasunean), eta gutxiago gainerako bi sektoreetan.
- **Okupatuen erdiek bizi diren udalerrian egiten dute lan:** Ia biztanleen erdiek bizi diren udalerrian bertan lan egiten dute; erdia baino apur bat gehixeago Gipuzkoan, eta hamarretik lau Lapurdin. Beste departamentu edo komunitate autonomo batetan, berriz, euro-hiriko biztanleen %4,4ak lan egiten du. Portzentaje hau %2,2ra jaisten da Gipuzkoan eta %8,3ra igotzen da Lapurdin.
- **Gehienak auto partikularra erabiltzen dute lanera joateko:** Baiona-Donostia euro-hiriko biztanle okupatuen erdiak baino gehiagok (%55,1) auto partikularra erabiltzen dute lanera joateko; soilik %14,8 joaten dira lantokira oinez, eta %12,2ak garraibide publikoa erabiltzen dute. Gipuzkoan gehiago dira oinez (%20,8) joaten direnak lanera, Lapurdin baino (%5,8). Aldiz, Lapurdin hamar okupatuetatik ia 8k erabiltzen du auto partikularra lanera joateko, eta Gipuzkoan hamarretik 5ek. Garraio publikoa, berriz, Lapurdiko langileen %2,8k baino ez du erabiltzen, eta Gipuzkoan ere soilik %11,9k.

II eranskina:

“Baiona-Donostia euskal Euro- hiria eta Iparraldeko gazteen txertatzea lan merkatuan. Formakuntza eta lan ibilbidea”

TXOSTENAREN IZENBURUA: "Baiona-Donostia euskal Euro- hiria eta Iparraldeko gazteen txertatzea lan merkatuan. Formakuntza eta lan ibilbidea"

EGILEAK:

Zuzendariak:

- Solange Mariluz
- Anton Borja

Lan taldea:

- Mirentxu Arbeletxe
- Xan Anton Durruty
- Arantxa Idieder
- Eulatz Zufiaurre

EDUKIAK:

- Hitzaurrea
- I.- Problematika
- II. Ikerketaren helburuak
- III. Metodologia
- IV. Lan taldea
- V. Lan prozedura
- VI. Analisia
- VII. Ondorioak
- VIII. Eranskinak

EGINDAKO LANAREN AURKEZPENA:

Txosten honek, euro-hiria osatzen duten Lapurdiko udalerrietako gazteek heziketaz, lana bilatzeaz edo lan eskaintzaz bizi izan dituzten esperientziak eta iritziak jaso eta aztertzen ditu.

Honen bitartez Baiona-Donostia euro-hiriko lan merkatuaren azterketa estatistikoa osatu nahi dugu, besteak beste inguru geografiko horri buruz dagoen informazio hutsunea osatzeko.

Ikerketa honetan kontuan hartu dugu Lapurdiko kostaldea eta honen eragin eremua. Horregatik kostaldeko gazteekin batera barnealdekoak ere elkarrizketatu ditugu.

Orotara 18 eta 29 urte bitarteko 61 gazteren lekukotasunak jaso eta aztertu ditugu. Metodologia kualitatiboa jarraituz egin dugu lana. Honen arrazoia teknikoa da, ia ezinezkoa baita erakunde publikoa ez den batentzat inkesta baterako behar diren datu pertsonalak eskuratzea. Honela, Garapen Kontseiluak "*Chantier Jeunes*" atalean gazteen iritziak ezagutzeko egin bezala, geuk ere metodologia kuantitatiboaren aldeko hautua egin dugu.

Euro-hiriaren baitan dauden Gipuzkoako udalerriekin ez dugu lan bera egin gaiari buruz nahikoa informazio kuantitatibo eta kualitatibo badagoelakoan. Horretarako aski da Eustat eta Eusko Jaurlaritzak maiztasunez argitaratzen dituzten serie estatistikoak, inkestak eta azterketa txostenak hartzea.

Txostenak bost atal nagusi ditu. Hasieran gaia edo problematika aurkezten du, segidan jarraitutako metodologiaren inguruko azalpenak ematen ditu. Hirugarren atalak jasotako informazioaren analisisa egiten du. Azken aurrekoan ondorioak ematen ditugu eta amaieran informazioa osatzera datozen eranskinak.

ONDORIO NAGUSIAK:

Elkarrizketek utzi dizkiguten erantzunak aztertuz azpimarratu ditugun elementuen argitan:

1.- BIZITZA IBILBIDEAK

Iparraldeko gazteen artean ikus ditzakegun bizitza ibilbideak, hirutan sailka ditzakegu nagusiki:

A IBILBIDEA: Iparraldean ikasi eta Iparraldean bizi.

Formakuntza Iparraldean bertan jaso dutenek, bertan bizi eta lan egiteko asmoa adierazten dute eta lortzen dute. Hauen artean bistan da, talde desberdinak daude. Bada multzo bat, bertan sortutakoena, etxe ondoan eskaintzen zaion formakuntzaren aldeko hautua egin duena bertan bizi eta lan egin ahal izateko. Beste taldea, formakuntza jakin bat jasotzera kanpotik etorri eta bertan gelditu direnek osatzen dute. Motibazio desberdinek eraginda bada ere, antzeko ibilbidea egiten dute. Talde honen ezaugarri nagusiak bi dira, formakuntza maila baxua edo ertaina eta bertan bizitzeko hautua bertako bizimoduarekiko atxikimenduak eraginda.

B IBILBIDEA: Iparraldetik kanpo ikasi, kanpoan bizi, baina sorterrira itzuli.

Formakuntza kanpoan jaso dutenen ibilbidea oso bestelakoa da. Ikasketa jakin batzuekin sentitzen duten atxikimendua handia da eta horrek ikasketa horiek egitearren etxetik urruntzera bultzatzen ditu. A ibilbidean artean bertan sortutako taldearen aldean guztiz bestelako joera du, beraz. Oro har, kanpora joatearen balorazio oso positiboa egiten dute guztiek, bai formazioari dagokionez bai bizimoduari dagokionez. Ibilbide honetan kokatzen dira formazioa Frantzian zein Hegoaldean jaso dutenak. Ibilbide honetan dabilzan gazte guztiek, ordea, sorterrira itzultzeko asmo sendoa adierazten dute eta horretan A ibilbideko gazteen sentsibilitatearekin bat egiten dute.

C IBILBIDEA: Kanpotik etorri eta Iparraldea deskubritu

Kanpotik ikastera etorritako gazte gehienak formakuntza jakin baten bila etorritakoak dira. Motibazioa guztiz instrumentala da. Iparraldetik kanpora joandako gazteek bezala hauek ere positibotzat jotzen dute desplazamendua. Iparraldean izandako bizi-esperientzia ere oro har positiboa dela ikusten da. Ikasketak amaitutakoan bertan lan egin eta bizitzen jarraitzeko asmoa adierazten dute. Erabaki hori jasotako formazioaren garapen profesionala izateko aukerari eta bertako bizi-baldintza egokiei loturik doa. Baina, inguru sozialean integratzeko zailtasunak aipatzen dituzte. Zailtasun horiek gainditzeko, beraz, subjektu bakoitzak bere ibilbide propioa egin behar izaten du iristen den une beretik.

2.- ONDORIO NAGUSIAK

- Iparraldeko formazio eskaintza mugatua da, batez ere, goi-mailako ikasketetan. Gazteak errealitate horrekin kontziente dira eta beren formazioa, ibilbide profesionala edo bizilekua erabat baldintzatzerira iristen da.
- Formazio eskaintzaren ezaugarriek gazte askoren bizilekua edo garapen profesionala baldintzatzen ditu. Bertan bizi nahi duenak formazio maila apaldu behar izaten du bertako lan merkatuak eskaintzen dituen lanpostuetara egokituz bertan bizitzen jarraitu ahal izateko. Aldiz, formazioa bertan bizitzearen aurretik jarri behar izaten du gazte askok eta unibertsitate mailan gogoko ikasketak egin ahal izateko kanpora joateko erabakia hartu behar izaten du. Erabaki hori ez dago formakuntzaren hautuari bakarrik loturik, ibilbide profesionala eta bizilekua baldintzatzerira iristen den erabakia da.
- Formakuntza eskaintza mugatuak eta bertako lan merkatuaren izaerak (jarduera eremu gutxi batzuen nagusigoa) populazio mugimendu handia eragiten du, ikasteko edo zenbait lanbidetan jarduteko Iparraldeko gazteen zati handi batek sorterrria utzi behar izaten du eta honekin bertako gazterik formatuenak galtzen.
- Bertako gazterik formatuenak joan beharra eta bertako lan merkatua kanpotik etorritako gazteez osatzeak bertako gizartearen eraldaketa sozio-kultural handia dakar, beti ere, kinka larrian dagoen bertako identitatearen kaltetan.
- Bertako gazteek, kanpora joandakoek zein bertan gelditutakoek atxikimendu handia sentitzen dute Iparraldearekiko eta bertan bizitzen jartzeko borondatea

adierazten dute. Beraz, kanpora joatea estrukturalki eragindako mugimendua da, ez da gazteen borondatez gertatzen eta hein batean bertako gazteen nahiaren kontrakoa da.

- Bertako bizi-kalitatea eta inguru soziala biziki preziatuak dira gazteentzat. Beraz, esan daiteke ez dagoela marjinazio edo ukazio jarrerarik gazteen artean.
- Muga administratiboak muga psikologikoa izaten jarraitzen du. Mugaz gaindiko elkarlan politikak ez dute gazteek ikasketak edo lantokia hautatzeko portaeran ia eraginik.
- Hegoaldeari buruzko informazioa formalki emateko antolatu diren saioek gazteen muga psikologikoekin egiten dute topo. Hegoaldean ikasi edo lan egitearen esperientzia bizi izan duten gazteen balorazio positiboak erakusten du bide horrek aukera onak dituela etorkizunean.
- Iparraldeko gazteek bertako lan merkatuari buruz oso informazio gutxi izaten dute eta are gutxiago Hegoaldekoaz. Gainera, alor hauetako informazioa jasotzeko eta lanpostuak aurkitzeko bide informaletara jotzen dute gehienbat.
- Kostaldea eta Barnealdearen arteko desoreka handia da lan merkatuari dagokionez. Baiona eta Lapurdiko kostaldea da lan merkatuari dagokionez inguru aktiboena eta aberatsena, nahiz eta hau ere jarduera eremu gutxi batzuetara mugatua izan. Berez nahikoa mugatua den lan merkatua are mugatuagoa da barnealdean. Horrek berarekin dakartza hainbat ondorio, jarduera profesionalen aldetik oso mugatua dela eta beraz, lan merkatua horretara mugatzen dela, emazteentzat lan eskaintza are mugatuagoa dela, beraz, migratzera are behartuago daudela...
- Lan eskaintza eta formakuntzaren artean desoreka dagoela sumatzen dute gazteek. Hots, lan merkatua formazio eskaintza bera baino mugatuagoa dela. Gertaera hori sentimendu negatiboz bizi dute gazteek, batez ere, lanpostu eskaintzak ez dituztelako erakargarri ikusten eta gainera, turismoaren nagusigoaz duten iritz negatiboak sektore horretan jardutera ez dituelako batere animatzen.
- Gazteek esperientzia hartu nahi izateak lan baldintzak gutxietsi eta errotazio handia duten ibilbidea egitera daramatza. Formakuntzari dagokionez komenigarria izan daiteke, merkatuak formazioa eskatzen baitu, baina horrek enpresentzat arazo eta galera handia dakar, gazteak ez baitira konprometitzeko prest eta

enpresan jasotako formakuntza galdu egiten delako. Horrela oso zaila da ibilbide luzeko eta formazio sakoneko profesionalak izatera iristea.

- Ikuspegi eta pentsamoldez oso jarrera malgua adierazten duen gaztedia da. Profesionaltasunari garrantzia handia ematen dio eta neurri berean prest da bere bizimodua bere lan jardunari lotzeko edo bizilekua horretara makurtzeko. Zoritxarrez, formazio eskaintza mugatuak eta goi mailako profesionalen behar apalak gazte asko, gehiegi emigratzera behartzen ditu.
- Kanpotik etorritakoak kasualitatez etorri iritsi izana eta bertako errealitate kultural bereziaren aurrean harriturik sentitzeak agerian uzten du bizi duten desinformazioa. Komenigarria litzateke integrazioa erraztu edo lagunduko lukeen oinarrizko laguntza moduak planteatzea, bertako errealitatean errazago txertatzeko eta bertako berezitasunak (hizkuntzarena batez ere) bere egiteko.

III.- ONDORIO OROKORRAK

- Gazteen nahia eta formazio eskaintzaren arteko diferentziak bi fenomeno garrantzitsu eragiten ditu : Bertan ikasteko hautua egiten duenak formakuntza mailan helburuak apaldu behar ditu eta apaltzen ez baditu emigratu egin behar du. Fenomeno honek ondorio sakonak ditu eta horrekin jabetzen dira gazteak, bestek beste, Iparraldeko jarduera profesionalen ezaugarriak apaltzen baititu (soldata apalagoak, kualifikazio txikiagoko lan eskaintzak...).
- Mugaz gaindiko harremanak sakondu beharraz asko hitz egin arren, honen eragina ez da iritsi oinarrizko mailetara ere. Honek agerian uzten du proiektu politikoaren eta proiektu sozialaren arteko aldea zenbatekoa den oraindik ere. Mugikortasun geografikoari dagokionez oso urrun gaude Europak sustatu nahi duen joeratik. Egoera hau are larriagoa da informazio falta denean gazte guztiek aipatzen dutena. Nola joko dute Hegoaldera ikastera edo lan bila oinarrizko informazioa falta izateaz gain, aurreiritzi ugari baldin badago? Hein berean, Hegoaldera joandakoen esperientzia positiboa izan da, bide formala aurkitu dutelako egin dute aukera hori eta hori oso aintzat hartzekoa da, sakontzeko eredia izan daiteke.

III eranskina:

“Estudio comparativo de las políticas de mercado de trabajo en el marco de la Euro-ciudad vasca”

TXOSTENAREN IZENBURUA: "Estudio comparativo de las políticas de mercado de trabajo en el marco de la Euro-ciudad vasca"

EGILEA:

Zuzendaria:

- Anton Borja

Egilea:

- Joseba Garmendia

EDUKIAK:

- 0.- Introducción
- 1.- Antecedentes y definiciones
- 2.- Breve repaso a las políticas de empleo en la unión europea
- 3.- Políticas de empleo en Iparralde
 - 3.1.- La estructura institucional en la aplicación de las políticas de empleo
 - 3.2.- Área de los servicios del empleo
 - 3.3.- El área de formación
 - 3.4.- Área de las ayudas al empleo
- 4.- Políticas de empleo en la Comunidad Autónoma de Euskadi
 - 4.1.- Estructura institucional en la aplicación de las políticas de empleo
 - 4.2.- Área de los servicios del empleo
 - 4.3.- Área de la formación
 - 4.4.- Área de ayudas al empleo
- 5.- Comparativa de las políticas activas de empleo en ambos espacios geográficos
- 6.- La movilidad laboral geográfica en la unión europea
- 7.- Conclusiones

EGINDAKO LANAREN AURKEZPENA:

El objetivo de este estudio es realizar un estudio comparativo de las políticas de empleo que se están aplicando en este ámbito con el objeto de aportar elementos reflexión al proyecto principal.

Actualmente, las políticas de empleo son una materia que compete al Gobierno Central, por lo que tanto su diseño como su ejecución superan el ámbito de la euro-ciudad, con algunas excepciones en el caso de la CAV. Por lo tanto, con este estudio no se persigue aportar una visión local de su aplicación sino conocer la estructura de las políticas que se están aplicando para de esta manera poder estudiar su posible influencia en un marco

trasfronterizo como puede llegar a ser la euro-ciudad en un contexto político europeo donde la movilidad laboral es un objetivo destacable.

Con dicho objeto el estudio expone las políticas de empleo diseñadas en ambos estados para después pasar a comparar su aplicación. El estudio finaliza con una breve exposición de la política europea en materia de movilidad laboral y un apartado de conclusiones.

ONDORIO NAGUSIAK:

- Tanto en el estado español como en el francés la política de empleo es competencia del Gobierno Central. Ello supone que para el caso que nos ocupa, actualmente hay grandes limitaciones a la hora de diseñar una política de empleo con visión transfronteriza. Este hecho tiene importantes repercusiones a la hora de plantear un mercado laboral unificado donde se puedan aprovechar su diversidad tanto en el ámbito de oferta como en el de la demanda de empleo. Este hecho es aún más sangrante si se tiene en cuenta los múltiples lazos lingüísticos, culturales o familiares que aportan un elemento de cohesión importantísimo, y especialmente favorecedor para el desarrollo económico local si se sabe aprovechar.
- Los criterios de movilidad laboral postulados por la Unión Europea encuentran una importante barrera en el caso de la euro-ciudad, ya que las políticas estatales se limitan a atender a la población local y no a aquella que convive en vecindad dentro del conjunto urbano polinuclear que es la euro-ciudad. Hay que destacar esta carencia especialmente en el ámbito de la oferta o el emprendizaje, ya que a pesar de que el ámbito geográfico es relativamente pequeño no se fomenta la oferta de empleo allende la frontera, donde pudiera haber candidatos. Se observa la misma carencia con respecto al emprendizaje, el fomento de la colaboración entre emprendedores de ambos lados de la frontera pudiera posibilitar la conjunción de conocimientos, recursos y sobre todo una actuación mercantil que supere los límites administrativos. Esta posibilidad pudiera ser especialmente interesante para el sector de los servicios en la euro-ciudad, puesto que facilitaría una mayor oferta, y especialmente, poder disponer un abanico más amplio de recursos, tecnología y *know how*.
- Las grandes diferencias que se observan en el esfuerzo inversor para el fomento del empleo por parte de ambos estados hacen suponer que en el caso de Iparralde hay una mayor respuesta local a la demanda y la oferta de empleo, puesto que hay un mayor esfuerzo. Esto nos puede señalar una situación en la que en el contexto de Iparralde existe poca demanda sin atender. No obstante, la evidente diferencia que existe entre ambos lados de la frontera con respecto a las actividades económicas (Iparralde cuenta con un tejido económico circunscrito

casi exclusivamente al turismo y el comercio) hace que la oferta de empleo de Hegoalde pueda resultar atractiva para aquellos trabajadores de Iparralde que por formación o vocación prefieren las actividades industriales. No olvidemos que actualmente hay una fuerte demanda de trabajadores en la industria guipuzcoana. Así mismo, tanto trabajadores de Hegoalde como empleadores de Iparralde pudieran encontrarse en común cuando el objetivo de la empresa de Iparralde sea trabajar con clientes de Hegoalde. Desgraciadamente, el diferente esfuerzo que realizan las dos administraciones en estos ámbitos hace que esta posibilidad resulte aún lejana.

- Concluimos, por tanto, que las actuales políticas de empleo y su estructura de gestión no permiten implementar políticas transfronterizas comunes en esta materia con todo lo que ello implica en nuestro caso. Significa, sobre todo desaprovechar recursos y posibilidades de crear un mercado laboral transfronterizo que atienda las necesidades de empleadores y empleados en el marco de la euro-ciudad. Parece difícil que esta situación pueda superarse en los próximos años.

- No obstante, los actuales recursos con los que se cuenta en la euro-ciudad, además de la voluntad de una gran parte de agentes institucionales, sociales y económicos , así como las políticas transfronterizas que actualmente fomenta la Unión Europea ofrecen posibilidades de avanzar hacia una mayor colaboración en este ámbito. Desde la visión que nos ofrece este estudio algunas de las iniciativas a adoptar pudieran ser las siguientes:
 - FORMACIÓN, ORIENTACIÓN E INSERCIÓN: Desarrollo de planes con firma de convenios transfronterizos para el intercambio y la difusión de información, ofertas de empleo, oferta formativa... que consiga superar el horizonte que plantean recursos como el EURES.
 - Estos convenios pudieran ser multilaterales o bilaterales en los que pudieran participar indistintamente agentes institucionales, sociales, universitarios, educativos, mediáticos... Y pudieran adquirir distintas formas, así como dirigirse a distintos sectores (estudiantes, parados, empleadores...). Por ejemplo:
 - Desarrollo de servicios de información y orientación estudiantil y/o social sobre formación, asesoramiento al emprendizaje, oferta de empleo... con visión transfronteriza. Así como ayudas oficiales para los que decidan desplazarse.
 - Fomento de la formación en euskara dirigida al mercado laboral local, así como fomento de puestos de trabajo con perfil lingüístico trilingüe, con

especial reconocimiento de la capacitación en euskara, que atienda la demanda existente dentro del sector servicios

- Convenios de colaboración transfronteriza entre centros de formación profesional y/o universitaria, tanto para la transferencia de conocimientos como para el intercambio de alumnos.
 - Planes especiales de captación de alumnos de Iparralde dentro del programa ERASMUS por parte de la UPV-EHU.
 - Planes de integración en el mercado laboral local de aquellas personas que hayan dado el paso de formarse allende la frontera y evitar su desplazamiento a otras comarcas.
 - ...
- MOVILIDAD: Planes y convenios institucionales para el fomento de la movilidad transfronteriza, especialmente en lo relativo a las ayudas económicas destinadas a este objetivo (bonificaciones por uso de transportes públicos –billete único-, ayudas al desplazamiento transfronterizo por estudios para estudiantes o trabajadores en formación...).

IV eranskina:

“Lan mugikortasunari buruzko delphi azterketa Baiona-Donostia euskal Euro-hiriaren baitan”

TXOSTENAREN IZENBURUA: "Lan mugikortasunari buruzko delphi azterketa Baiona-Donostia euskal Euro-hiriaren baitan"

EGILEA: Aztiker Soziologia Ikergunea

EDUKIAK:

1)SARRERA

1.1.1 Kokapena: ikerketa zabalago baten atal

1.1.2 Helburua eta azterketa gaiak

1.1.3 Planteamendu metodologikoa

2)BAIONA-DONOSTIA EURO-HIRIAREN TESTUINGURUA

2.1.1 Euskal euro-hiria, gunere berezia

2.1.2 Lisboako estrategia

2.1.3 Langileen mugikortasuna, bi egitasmo horien aitzinean

3)MERKATU EKONOMIKO EZBERDINEN OSAGARRITASUNA

3.1.1 Merkatu ekonomiko ezberdina 12

3.1.2 Jarduera ekonomiko eta lan merkatuaren osagarritasuna

3.1.3 Hezkuntza sistemaren osagarritasuna 18

3.1.4 Europako Batasuneko politiken bidetik oztopo administratiboak gaindituz

4)MUGIKORTASUNA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK

4.1.1 Muga mentala eta elkar ez ezagutzeak

4.1.2 Hizkuntzak

4.1.3 Lan merkatuen hertsitasuna

4.1.4 Lan merkatuaren kalitatea; lan baldintza ezberdinak

4.1.5 Hezkuntza sistema ezberdinduak

4.1.6 Mugikortasun arazoak

4.1.7 Administrazioaren bultzada falta

5)MUGIKORTASUNEAN POSITIBOKI ERAGIN DEZAKETEN FAKTOREAK

5.1.1 Elkar ezagutzeko bideak ireki

5.1.2 Hizkuntza politika birplanteatu

5.1.3 Ikasketen baliokidetasuna bideratu eta osagarritasuna aldarrikatu

5.1.4 Jarduera ekonomikoa bultzatu

5.1.5 Lan merkatua kudeatzen duen sare bat eraiki

5.1.6 Azpiegitura sarea hobetu 39

5.1.7 Merkataritza sare bat bultzatu 40

5.1.8 Baiona-Donostia euro-hiriaren egitasmoan aurrera egin

5.1.9 Administrazioen konpromisoa bilatu

5.1.10 Langile eta eragileen ekimena

6)ONDORIOAK LABURBILDUZ

7) DOKUMENTAZIOA

8) ERANSKINA: IKERKETAN ERABILITAKO EUSKARRIAK

8.1.1 Adituei bidalitako azalpen gutuna

8.1.2 Galdera sorta

EGINDAKO LANAREN AURKEZPENA:

Txosten hau, mugaren bi aldetako 11 aditurekin egindako elkarrizketen emaitza dugu. Aditu horiei hiru gai nagusiren inguruan galdegin diegu: Alde batetik, Baiona-Donostiako lan merkatua Europako Batasunaren Lisboako estrategiaren baitan kokatu dezaten eskatu diegu. Bestetik, Baiona-Donostiako lan merkatuaren bilakaeraz hausnarketa egitea eta, azkenik, egon daitezkeen formazio eta kualifikazio premien inguruan duten iritzia eskatu diegu. Gogoeta lerro horren bitartez ondorio nagusi baten inguruko hausnarketa egitea eskatzen genien: ***Baiona-Donostiako herritarrentzat aukera bideragarria (formazio eta lan baldintzen aldetik) eta erakargarriagoa (beste aukera batzuen artean) izango al da mugaren beste aldean lan egitea?***

Horixe argitzen ahalegintzea dugu ikerlan honen helburu nagusi. Gai honen inguruko gogoeta une honetan egitearen egokitasuna inguru horrek bizi duen une berezian kokatu behar dugu.

Batetik, euro-hiriaren garapenak aukera berriak ekarriko ditu: zerbitzu berriak, azpiegitura berriak, herritarren mugikortasun handiagoa... Errealitate horretan kokatzeko ahalegina egin beharko dute enpresek, formazio erakundeek, lana bilatzeko zerbitzuek, instituzioek...

Bestetik, Lisboako Estrategiari jarraituz enpresen lehiakortasuna handitzeko politika berriek eragin zuzena izan dezakete egungo Baiona-Donostiako lan merkatuan (enpresen teknologia berrikuntza, lanpostu berriak, titulazio berriak lan merkatuan, emakumearen presentzia handiagoa jarduera ekonomikoetan, lanerako lanbide-prestakuntza politika berriak...).

ONDORIO NAGUSIAK:

Gure galdera nagusiari, hots, ***Baiona-Donostiako herritarrentzat aukera bideragarria (formazio eta lan baldintzen aldetik) eta erakargarriagoa (beste aukera batzuen artean) izango ote den mugaren beste aldean lan egitea***, baiezko borobila eman diete adituek. Alde batetik, bi aldeetako jarduera ekonomikoa, eta ondorioz merkatua ezberdina den arren osagarriak direlako. Bestetik, Baiona-Donostia euro-hiriaren egitasmoak bi aldeetako lan merkatuan aukera berriak zabalduko lituzkeelako.

Europako Batasunetik heldu zaizkigun joerak ere lagungarri izango dira langileen mugikortasuna ahalbidetzeko ahaleginetan. Egun Hegoaldeko lan merkatua dinamikoa den arren (lanpostu berri asko sortzen dira), sortzen diren aukera gehienek lan baldintzak ez dira erakargarriak izateko bezain onak. Aditu batzuen iritziz hau aldatu daiteke Lisboako estrategiaren haritik. Ezagutzaren ekonomiara jauzia emateko inbertsioak egiten badira, balio erantsia duten kalitatezko lanpostuak sortuko dira eta Hegoaldeko lan merkatuak behar duen kalitatezko lanpostuak sortuko ditu.

Iritzi hau ordea ez da oso zabaldua adituen artean, badira Lisboako estrategiak epe laburrean Baiona-Donostiako merkatuan eragin errealik ez duela izango uste dutenak, eta badira ere, Lisboako strategiaren asmo onetan sinesten ez dutenak.

Bestetik, Europako Batasunetik bultzatzen ari diren harmonizazio politikak oztopo administratiboak gainditzera datoz neurri handi batean; are gehiago, mugen arteko lankidetzak eta mugikortasuna bultzatzea da Batasuneko helburuetako bat. Horrek guztiak, langileen eta ikasleen mugikortasuna erraztuko du dudarik gabe.

Dena den, hori horrela izanik ere adituen ustez, administrazioetatik oraindik lan handia dago egiteko. Eta arrazoi bat eta bestea tarteko, egun ez dirudi administrazioen aldetik mugikortasunari bultzada sendoa emateko aukera handiegia denik. Batzuk, Hegoaldeko administrazioen nahikeria faltan ipintzen dituzte erruak, besteek Iparraldeko administrazioen ahalmen, eraginkortasun eta nahikeria faltan, beste batzuek azkenik, alde bateko zein besteko administrazioek benetako apustu argia egitea falta dutela irizten diote.

Horiek aipatzen diren aukera eta muga administratiboak, baina badira urtetako politikek eragindako beste maila batetako mugak ere. Urtetan Parisera eta Madrilera begira bizitzen egon ondoren mugaz bi aldeetako herritarren artean muga psikologiko eta kultural garrantzitsua sortu da. Muga horren ondorioz, pentsamendu kolektiboan mugaz beste aldean dagoena ez da existitu ere egiten. Lan postua bilatzerakoan, langileak topatzen saiatzerakoan, beste merkatuetara zabaltzera jotzen denean, ikasketak aukeratzerakoan, etab. geografikoki kilometro batzuetara soilik dagoen errealitate hori ez da kontuan hartzen. Eta hori, aditu gehienek, identitate kultural komun bat badela ukazina dela aipatu dutenean.

Muga hauek guztiak halere, gainditu daitezkeela edo gainditzeko ari direla uste dute gehienek, eta etorkizun hurbilean aukera erakargarri izango dela mugaz beste aldeko merkatura zabaltzea, bai lanaren ikuspegitik eta baita enpresa ikuspegitik (merkatua zabaltzeko aukera, bertako esperientzietatik ikasteko, produktu komunak sortzeko, etab).

Zentzu honetan jadanik hasiak dira hainbat esperientzia garatzen, eta bidea horrelakoetan sakontzea dela uste dute adituek; hala nola, Hezkuntek, Arrasateko Unibertsitatea eta ESTIAren arteko elkarlana, Merkataritza Ganbarak kaleratutako '*Mugaz gaindiko langilearen Gida*', Euro-hiriaren egitasmoa bera, eta beste hainbat egitasmo...

Aldaketa, ordea, motela izango dela aipatzen da ere, eta guztion lana eta inplikazioa eskatuko duela.

"Lehen aipatu ditudan muga psikologiko eta kulturek murrizteko joera izango dutela uste dut eta, beraz, fluxua handitu egingo dela espero daiteke. Mugikortasuna handitzen ari da azken urteotan, bai ikasleen aldetik, bai langileen aldetik eta arlo

guztietan. Beraz, bide honetatik, mugikortasunak handitzeko joera izango duela espero daiteke. Izan ere, egun mugikortasuna hain eskasa denez, handitzeko joera izango duela uste dut.

Hala ere, egoera politikoak eta ekonomikoak aldaketa nabarmenak izaten ez dituzten bitartean, nik uste dut, joera hori konstantea izango dela baina motela. Egoera politikoa zeharo aldatuko balitz, edo nabarmen aldatuko balitz, hau da, Euskal Herriaren egituraketan aurreratuko balitz, honek bai ekarriko lukeela euskal mugako mugikortasuna handitzea.

Eta ekonomikoki aldaketa nabarmen bat egongo balitz, Iparraldean nahiz Hegoaldean, hobekuntza edo krisi bat dagoelako, horrek prozesua azkartzea ekarriko luke. Baina, gainontzean, bilakaera politikoak edo sozio-ekonomikoak aldaketa nabarmenak ez dituen bitartean, bai erakargarria izango da, eta fluxu gehiago egongo da, baina mugikortasun hau konstantea eta motela izango da." (Elkar.7)